

ECOREWARD

Ecoreward da gure proiektuaren izena. “Eco” eta “reward” ingelerako hitzak osatzen dute, proiektu ekologikoa izango baita, eta sarien bidez funtzionatuko delako.

Gure proiektua sortutakoan eguneko arazoei erreparatu genion. Bi arazo nagusi ikusi genituen: Ingurumena eta 3. sektorean herrian lan egiten duen jendea. Azken honi jendeak ez dio garrantzia handirik ematen, baina badauka. Gaur egun komertzio txikiak desagertzen ari dira multinazionalak direla eta. Hau arazo handia izango da hemendik gutxira, denda mota hauek gure herriak aberasten baitute.

Hau dela eta, gure negozioa bi arazo hauei bideratu egin dugu: Ingurumena eta komertzio txikiak.

Gure ontzietan birziklatzearen truke deskontuak eskaintzen dituen aplikazioan datza gure proiektua. Aplikazioak eskaintzen dituen onurak baliogarriak izaten dira birziklatzen ikasteko, joku baten bitartez adibidez, eta erosketak egiterakoan merkeagoak izateko gure deskontuen bitartez. Ontzi hauek informatizatuak diren ontziak dira, eskatzen dutelako aplikazioak ezarritako kode pertsonala deskontuak bidaltzeko. Kode hau lortzeko, gure ontzia erabili behar da zuzenki birziklatzen.

Espero dugu gure herriaren biztanleria prest egoteko ideia hau aurrera egiteko guztien bitartez.